

CAOSTICA 22

INTERNATIONAL FESTIVAL

SHORTFILM & MUSIC VIDEO

CAOSTICA 22 NAZIOARTEKO FILM LABUR ETA BIDEOKLIP JAIALDIAREN ARAUDIA

1. CAOSTICA 22an parte hartuko duten guztiek bete behar dute araudia.
2. Hemengo zein nazioarteko lanak. Gaztelaniaz ez dauden lanek azpigituluak eraman behar dituzte hizkuntza honetan. Ez dira beharrezkoak Bideoklip Atalean.
3. Egileak nahi beste film labur aurkez ditzake, beti ere 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera ekoiztu badira.
4. Caosticako aurreko edizioetara bidalitako lanek ezin izango dute parte hartu.
5. Parte hartu nahi duzun atala adierazi behar duzu:
 - a. **Bideozinema atala:** Fikzio laburmetraiak. Dokumentalak ez (gehienez 20 min.). Saria 1.000 €. *
 - b. **Bideoklip atala:** Musika-pieza originala sustatzeko sortutako lan bat izan behar du, edozein musika-estilotakoa: pop-a, rock-a, hip-hop-a, techno-a, punk-a, soul-a, r&b, klasikoa, reaggetoia, trap-core, txandal-metalak... (gehienez 10 min.). Saria 1.000 €. *
 - c. **Animazio atala:** Edozein animazio teknika (gehienez 20 min.). Saria 1.000 €. *
6. Atal bakoitzeko irabazleak garaikurra eta 1000€ko * diru-laguntza jasoko ditu. Sariak epaimahai profesional eta independente batek emango ditu.
7. **BIZARRO SARIA:** Caostica Kultura Elkarteak Bizarro Saria emango dio Jaialdiarekin bat datorren lanik lotsabako, berritzaile, bitxi, adeigabeko, martetar, baldar, arraro, arriskutsu, ausart eta adoretuari, izena eman duen atala edozein delarik ere. Sarira hautatuko duten lanak Bizarro Festa mitikoan proiektatuko dira, eta irabazleak garaikurra eta 1.000€ko * saria jasoko ditu.
8. **EUSKARAZ SORTUTAKO LAN ONENAREN SARIA:** Euskaraz sortutako Lan Onenaren Saria emango du Jaialdiak; horretarako, euskaraz egindako eta jaialdiaren edozein sailetan aurkeztutako lanen artean onena aukeratuko du. Irabazleak trofeoa eta 500 €ko * saria jasoko ditu.
9. Sarien ordainketa festibala bukatu ondorengo 6 hilabeteetan burutuko da. Festibalak ez du irabazleen egotea behartuko saria jaso ahal izateko.

10. Turismoari edo publizitateari begira egindako lanak ez dira onartuko. Lanen hautaketa prozesuan behar bezala ikusi ahal izateko kalitate tekniko nahikoa ez duten lanek ere ez dute parte hartzerik izango.

11. Inskripzio-gastuak film laburra inskribatzen duenaren kontu egongo dira. Baldintza hau betetzen ez duten lanak ez dira onartuko.

12. Lanak Movibeta on-line plataformaren (www.movibeta.com), Festhome (www.festhome.com) edo FilmFreeway (www.filmfreeway.com) webgunearen bitartez soilik bidal daitezke.

13. Lanak bidaltzeko epea beranduenez 2024ko apirilaren 10a izango da.

14. Hautaketa batzorderen ustez jaialdiaren izaeraz bat datozen lanak baino ez dira aukeratuko.

15. Festibalak aukeraketa ofiziala osotuko duten lanak zeintzuk diren komunikatuko dizkie parte hartzaile guztiei jaialdia baino hiru aste lehenago. Jakinarazpena posta elektronikoz bidez egingo da. Era berean, hautagai bakoitzari proiektuaren kopia eskatuko zaio formatu digitalean; hori ere posta elektronikoz bidez.

16. Festibalak bidaia antolatzeko eta ostatua aukeratzeko erraztasunak eskainiko dizkie lanen sortzaile edo ordezkariak; horretarako, bere bidaia-agentziarekin eta Jaialdiaren hotel ofizialarekin jarriko ditu harremanetan. Hala, aurrez hitzartutako tarifa bereziak aprobetxatu ahal izango dituzte hautagaiak, eta hautatutako lana proiektatzen den egunean bazkari edo afaria emango zaie.

17. Elkarrekin jasotako materialaren erabilera Jaialdiaren barnean erabiliko du, eta beti egilearekin harremanetan jarriko da jaialditik kanpoko aktibitatearen batean proiektatu nahi baldin badu baimena eskatzeko.

18. Caostica Kultura Elkarrekin, aukeratutako lanak proiektatzeko tokia egokituko du eta baliabideak hornituko ditu. Horrez gain, webgunean lanei buruzko informazioa argitaratuko denez, egileek ziur egon behar dute haien edukiak ez dituela jabetza intelektualaren zein hirugarrenen eskubideak urratu. Hortaz, elkarrekin edozein legerantzukizunetatik salbuetsita egongo da.

19. Caostica laburmetrai eta bideo klipen festibal internazionalaren 22. Edizioa Ekainaren 3tik 9ra ospatuko da Bilborock bezalako aretoetan.

20. Caostica 22 jaialdian parte hartzeak araudi hau onartu dela esan nahi du. Arauei dagokienez, zalantzarik egonez gero, jaialdiaren antolakuntza elkarrekin irizpidea nagusituko da.

21. Antolatzaileek araudia aldatzeko eskubidea dute eta edozein desadostasun ebastezko ere.

* Dirukopuru horri, indarrean dauden arau fiskalekin bat etorrira nahitaezkoak diren atxikipenak aplikatuko zaizkio.



CAOSTICA.COM



INFO@CAOSTICA.ORG



CAOSTICA



@CAOSTICA_BILBAO



@CAOSTICA_ORG